

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Ibilgailuak espaloietan zehar sartzeko eta aparkalekua gordetzeko (pasabideak) tasaren 2021eko errolda jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldiaren hasiera

Eginda dago udalaren jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik (A epigrafea, ibilgailuak finken barrura espaloietan zehar sartzeko eta bide publikoetako haien aparkalekua gordetzea) ordaindu beharreko tasaren 2021eko errolda. Hortaz, honen bitartez hura jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodun, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, interesa dutenek hura aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat emango da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2021eko otsailaren 1etik apirilaren 1era.

B) Betearazte aldia: 2021eko apirilaren 2tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2021eko urtarrilaren 12a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ